

MIKEL

Gidoia

147 hitz

Mikel ohean dago, bero-bero dago eta ez du jaiki nahi.



Ama dator gelara.

- Mikel, ireki begi horiek! Berandu da!

Baina Mikel ez da jaikitzen. Ondo dago ohean eta gainera ez du eskolara joan nahi. Ama haserretzen hasi da.

- Ea! Jaiki zaitez azkar, alfer hori!

Mikelek ordea:

- Ez, ez naiz alferra. Buruko mina handia daukat.
- Orduan, ez mugitu ohetik.
- Botika bat hartu behar dut.

Amak sukaldera joan eta botika ekartzen du, baina Mikelek ez du hartu nahi, gustu txarra baitu botika horrek.



- Hobeto pentsatu dut eta ez dut botikarik behar. Nahiago dut lo egin.



Begiak itxi ditu Mikelek. Ama kanpora irten da eta orduan Mikelek komiki batzuk atera ditu ohe azpitik eta irakurtzen hasi da. Halako batean ama sartzen da berriz eta Mikel komikiak irakurtzen harrapatzen du.

- Ez irakurri komikirik. Jaiki berehala, jantzi eta joan zaitez oraintxe eskolara. Hau mutil alferra!

*Kimetz 1 liburutik hartuta
Grabatuta*